

AuzoEkin.

1. eremuko aurkezpen-bilera.

Landa-auzoak.

Tolosako Udala.

1.

Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: martxoak 24

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: Udaletxeko osoko bilkuren aretoa

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Josune Sanz, Komunitatea eta Gobernantzako zinegotzia.
- o Aitor Agirresarobe, Ingurumena eta Landa Auzoetako zinegotzia.
- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.
- o Xabier Murua, Osoigo enpresako ordezkaria.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 30 bizilagun: 14 emakume eta 16 gizon.

- Auzoak:

- Olarraingo 5 (horietatik 3 San Esteban aldekoak, eta 2 Auzotxikikoak).
- Bedaioko 5
- Ugaraneko 2
- Aldabatzikiko 10
- Santa Lutziako 1
- Auzotxikiko 3
- Urkizuko 4

- Adina:

- Gazteenak: 22 urte.
- Zaharrenak: 80 urte.
- Batez besteko adina: 56 urte.

2.

Aurkezpenaren gakoak

Ongietorria eta saioaren kokapena

Udal-ordezkaritzako kideek beren burua aurkeztu dute, eta ongietorria egin diete bertaratutakoei.

Garikoitz Lekuona Izetak (Komunitatea eta Gobernantza Saileko zerbitzuburuak) labur azaldu du bilera non kokatzen den AuzoEkin prozesuan (auzo-elkarteek bere garaian Tolosako Udalari egindako eskariaren aurrean hartutako konpromisoari lotutako egitasmoa).

Ondoren, saioaren helburu orokorrak aurkeztu ditu:

- AuzoEkin prozesua eta haren faseak aurkeztea, eta parte-hartzaileak bertan kokatzea.
- Prozesurako funtsezkoak diren taldeak eta eragileak identifikatzea eta sailkatzea.
- Lurraldean komunikatzeko eta parte hartzeko espazioak eta kanalak identifikatzea.
- *erabaki.tolosa.eus* aurkeztea.

3. **Prozesuaren azalpena**

Idea nagusiak: AuzoEkin kokatzen (Garikoitz Lekuona)

Teknikariak prozesua azaldu du. Hauek dira idea nagusiak:

- AuzoEkin proiektuaren helburua da Tolosako auzo guztien garapen integral eta orekatua sustatzea eta herritarren erabaki-ahalmena handitzea.
- Ekimenak bermatu nahi du Udalaren baliabide eta inbertsioak herriko eremu guztietara iristea, eta badu asmoa auzoen epe motz-ertaineko komunitate-erronkei erantzuteko ere. Auzotarrek beharren diagnostiko integral bat egin eta gero, lau urteko begirada izango duen plan bat sortuko da eremu bakoitzeko. Auzotarrek erabakiko dute, urtez urte, zein proiektutara bideratu eremu horri dagokion udal-aurrekontua.
- Tolosa zenbait eremutan banatu da, eta hiru eremu hautatu dira proiektuarekin esperimentatzeko. Erabaki horiek hartu dira iritzi tekniko hainbat auzo-ordezkarirekin kontrastatu ostean, eta zenbait saioen testuinguruan, herritarrek elkarlanean.
- Fasekako prozesu bat diseinatu da: 0 fasea, dagoeneko egin dagoena (diseinu partekatua); 1 fasea, egungoa (diagnostikoa); 2 fasea (plana egitea); eta 3 fasea (gauzatzea eta jarraipena).
- 0 fasea (diseinu partekatua) 2024ko azaroa eta 2025eko urtarrila bitartean egin zen eta emaitza [Partaidetza Markoa](#) deritzon dokumentua izan da.

Prozesuaren azalpena (1 eta 2 faseak) (Garikoitz Lekuona)

1. DIAGNOSTIKOA (egungo fasea)

Eremuz eremu egoera eta beharrak aztertuko dira, modu integralean: ingurumena eta paisaia, historia eta kultura, mugikortasuna, espazio publikoa, etxebizitza, biztanleria eta bizikidetzak, ekipamendu eta zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa...

- Aurkezpen-bilera irekia (gaurko saioa)

Bilera ireki hau da abiapuntua, non parte hartuko duten eremuko auzotarrek, bertako langileek edota bizia bertan egiten dutenek. Edonork parte hartu ahal izan du.

- Talde eragilea osatu (hurrengo urratsa)

Talde eragilea osatuko dute auzoetako erakunde ordezkariek eta parte hartzeko interesa duten auzotarrek; talde eragileak prozesua babestuko du, eta parte hartzea sustatu. Bertara gonbidatuko dira lehen bilera irekian identifikatutako funtsezko eragileak ere. Ezaugarri espezifikoak dituzten kolektiboen parte-hartzea bermatzeko ahalegina egingo da, hala nola adinekoena, gazteena, migratzaileena, emakumeena eta kolektibo ahulena.

- Galdeketak auzotarrei (Ikertaldeak aurkeztu du)

Auzotarrei inkestak egingo zaizkie, auzoaren beharrak identifikatzeko.

- Hiru elkarrizketa sakon eragile giltzarriekin (Osoigok azaldu du)

Gutxienez elkarrizketetako bat kolektibo kalteberenekin egingo da.

- 6-10 pertsonako eztabaida-talde bat (Osoigok azaldu du)

Kolektibo kalteberenen parte-hartzea bermatu beharko da.

- Ideiak partekatzeko lantegi irekiak (Osoigok azaldu du)

Aurretik egindako hausnarketak kontuan hartuta, lantegi irekiak izango dira informazioa eta ideiak partekatzeko eztabaidagune.

- Ibilaldi gidatuak (Osoigok azaldu du)

Eremu bakoitzean ibilaldi gidatua egingo da, auzoa begirada kritikoarekin aztertzeko.

- Diagnostikoaren aurkezpena (Ikertaldeak eta Osoigok azaldu dute)

Diagnostiko-fasearen amaierako emaitzak aurkeztuko dira.

- Erabaki.tolosa.eus plataforma (Lide Olalde aurkeztu du)

Prozesuari buruzko informazio osoa aurkitzeaz gain, prozesuari jarraipena egin ahalko zaio une oro. Bertan jasoko dira hitzorduak eta aktak/kronikak. Azaldu da nola erregistratu publikatzen den guztiaren berri jaso ahal izateko.

2. PLAN PARTEKATUA DISEINATU (2. fasea, udazkenean)

Diagnostikoa amaituta, eremu bakoitza garatzeko lau urteko plana egingo da. Gainera, auzotarrek erabakiko dute 2026ko aurrekontuaren barruan dirua zein proiektu edo lanetara bideratuko den.

Talde eragilearen eginkizunak eta partaideen profil desiragarria (Garikoitz Lekuona)

Taldeari honako zeregin hauek egiteko eskatuko zaio:

- Funtsezko eragileak identifikatzea (pertsonak, erakundeak, gizarte-ehuna, ehun ekonomikoa...).
- Inplikazio-mailak finkatzea, hiru mailatan: handia (talde eragilea), ertaina (lantegi irekiak) eta txikia (laguntza puntualak...).
- Lurraldeko informazio- eta partaidetza-kanal eta gune nagusiak biltzea.

Talde eragilearen saioan parte hartzeko gonbidapena egin da:

Bilera apirilaren 9an izango da, leku berean, 18:00etatik 20:00etara.

Izen-ematea: erabaki.tolosa.eus plataformaren bidez egin daiteke.

4. Auzoko eskaeren jarraipena

Auzotarren txanda

Auzotarrei hitza eman zaie, beren iritzia jasotzeko eta proposamen berriak egiteko.

Olarraineko bizilagun batzuek haserrea adierazi dute, Udalak erabaki duelako Bellotan jasota zeuden inauterietako karrozak bertako orube batean jartzea.

Bizilagunak kexatu dira Udalak aurretiaz ez dielako ezer jakinarazi, eta kezka adierazi dute eremuaren egungo egoeraz (zikinkeria, pilatzen den zaborra, utzikeria sentrazioa...). Uste dute karrozak bertan kokatzeak egoera hori areagotzen duela.

Eskatu dute zonaldea txukun mantentzea, eta Udaltzaingoak ingurunea zaintzea, lapurretarik edo apurketarik izan ez dadin.

Udal-zinegotziek erantzun dute karrozen gaia herri-arazoa dela, eta ez soilik Olarraingo bizilagunena edo Udalarena, eta kudeaketa konplexua duela. Karrozak behin-behinean kokatu direla Olarrainen, eta karrozen gaiarekin lanean jarraitzen duela Udalak.

Adierazi diete beren kezka guztiak jaso direla, eta irtenbide bat ematen saiatuko direla.

Bedaiori buruz informazioa eskatu du bertaratutako Olarraingo bizilagun batek. Bedaioko auzokideek ez dute ezer adierazi aretoan. Udalak azaldu du banatzeko prozesua martxan jartzen dela ere, prozesua luzea izan daitekeela eta Bedaioko auzotarrak Tolosarrak diren heinean, eta auzoa Landa eremuan kokatuta dagoenez, Auzoekin proiektuaren barruan, Landa eremu honetan kokatuko dela.

Beste bizilagun batek Olarraingo jolas-parkeari buruz galdetu du, eta ordezkari politikoek erantzun diote eskaera jaso dagoela, baina momentuz ezin zaiola ekin lan horri; izan ere, nahiz eta bere horretan ez dirudien konplexutasun handikoa, arautegi berezia betetzea eskatzen du, eta beste jolas-parke batzuekin batera egin behar da. Teknikariak adibide bezala asfaltatze lanak aipatu ditu eta AuzoEkinen baitako erabaki ahalmen aukerak holako interbentzioak ere bideratzeko baliagarri izan daitekeela proposatu du.

Itxiera

Eskerrak eman, eta azken erronda egin da. Hurrengo hitzordua gogorarazi da: **talde eragilea osatzeko bilera, apirilaren 9an, osoko bilkuren aretoan, 18:00etatik 20:00etara.**